

Etxerako lanak

ETXEBIZITZEN IKUSKARITZA. Datorren urtetik aurrera, etxeen jabeek 30 urtez gorako etxebizitzaren azterketa ordaindu beharko dute Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

LUIS KARLOS GARCIA-GASTEIZ

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 30 urte baino gehiago dituzten etxebizitzaren jabeek etxea aztertzeko eskatu eta ordaindu beharko dute, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak datorren urtean onetsi nahi duen aginduaren arabera. Azterketaren ziurtagiri hori hamar urtetik behin berritu beharko da gero.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Arkitekтура zuzendari Sonia Samaniegok BERRIARI azaldu dio etxe zaharrek nahitaez pasatu beharko dutela ibilgailuek gainditu behar izaten duten azterketaren gisako zerbaite. Ikuskaritza horrek ebatziko du zertan diren etxebizitzaren osagai nagusiak, hots, egitura, aitzinaldea eta hodiak.

«Ikuskaritza ez du Administrazioak abiarazi beharko, jabeak berak baizik, nahiz eta guk prezioak kontrolatu beharko ditugun», zehaztu du Samaniegok. Gero, azterketan arazoren bat sumatuz gero, jabeak arazoak konpondu beharko ditu.

Horretan ere, etxebizitzaren azterketak ibilgailuenaren antz

handia izango du. «Ibilgailuen kontrola pasatzea normalizatzen badugu, tartean segurtasuna dagoelako, berdin egin beharko genuke gure inbertsiorik garrantzitsuenak izan ohi dena, etxebizitza, nola dagoen jakiteko, ezta?», esan du Sonia Samaniegok.

Aurten, ikuskaritzaren probak egiten ari dira, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako arkitektoen elkargoek sinatutako itunari jarraiki.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak ez du oraindik erabaki zenbateko isunak jarriko diren, baina agindua betetzen ez duenak ordaindu beharko duela aurreratu du. «Dena den, argi daukagu beste era bateko bidea urratu beharra daukagula, etxebizitzak zaharberitzeko diru laguntzen aukera hobetsiz, alegia», gehitu du Samaniegok. Eusko Jaurlaritzak diru sarreraren arabera laguntzak ematen ditu.

Zernahi gisara, Samaniegok ziurtatu du Administrazioak bere kabuz obrak egingo dituela «segurtasuna kolokan duten eraikinetan», eta, gero, kostua jabeek helaraziko diela.

Bizitzeko egokitasunaren agiriaren araua Nafarroan

Nafarroan, ez dago indarrean horrelako ikuskaritzarik, ezta ezer arautzeko asmorik ere, Gobernuak BERRIARI jakinarazitakoaren arabera.

Edozein modutan, Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailak antzeko zer edo zer arautu zuen orain dela bi aste, iragan martxoaren 22ko aginduan, bizitzeko egokitasunaren agiria dela eta. Foru aginduak «arautegia bateratu du etxebizitzek bizitzeko egoki izateko bete beharreko gutxieneko baldintzak direla eta».

Testuaren arabera, Saileko zerbitzu teknikoek edozein unetan aztertu ahal izango dute baldintzak betetzen diren edo ez. Helburua da «bizitzeko egokitasunaren agiriak ez duten etxebizitza gisa ez erabiltzea».

Nafarroako Gobernuaren dekretuak hiru motatako agiriak ezarri zituen indarrean. Alde



ETXE ZAHARREK derrigorren pasatu beharko dute azterketa. Arazoren bat sumatuz gero, jabeak konpondu egin beharko du. JABEAK BERRIARI / ANAIZU PRESS

batetik, A motakoa dagokie etxebizitza berriei eta eraikinen egitura egokitzten dutenei; 30 urterako balioko du. B motakoa, berriz, aurreko agiriak berritzean emango dituzte, baina aurrez bizitzeko egokitasunaren agiriak ez dutenei ere; 10 urterako balioko du. Azkenik,

behin-behineko agiria emango dute bizitzeko egoki izateko gutxieneko baldintzak jartzeko asmoz obrak egiten dituzten etxeetarako; bederatziz hilabeterako balioko du.

Nafarroako Gobernuaren dekretua indarrean dago joan zen martxoaren 1az geroztik.

ERAIKINAK

Eraikinen liburua maiatzean

Maiatzaren hondarrean indarrean jarriko da Eusko Jaurlaritzak iazko azaroan onartutako Eraikinen Liburuaren agindua. Sonia Samaniegok Etxebizitza eta Arkitekтура zuzendariaren esanetan, jabearentzako «tresna» izatea nahi dute, «erosten duenez eta etxea mantentzeko eraz argibideak emateko». Jabeak esango zaio, esaterako, «ur eta gas instalazioak zer paretatan dauden, horma non zulatu jakin ahal izan dezan».

Liburuak obrako dokumentazio guztia jasoko du: planoak, instalazioak... Baita informazio gehiago ere: «Liburuak agertuko du nola mantendu osagai bakoitza: teilatua noiz berrikusi, hodiak noiz ikuskatu... Materialaren arabeko parametro objektibo jakinak izaten baitira normalean». Etxebizitza berriek nahiz moldatutakoek izango dute liburua.

Nafarroako Gobernuak, berriz, 2001. urteko irailean onartu zuen Eraikinen Liburuaren foru agindua. Eraikitzaileak eraikuntzari buruzko dokumentuak eta obran aritutako teknikari zein industrialen datuak eman behar ditu.

Datua

%50

Eusko Jaurlaritzak ez du oraindik daturik landu ikuskaritzak zenbat etxebizitzari eragin diezaiokkeen argitzeko. Hala eta guztiz ere, Gasteiz adibidetzat hartuz gero, 2003ko Estatistika Txostenak dio iaz %50 zirela 1976. urtearen aurretik egindako etxebizitzak. Hala, iaz 45.000 etxe inguruk pasatu beharko lukete ikuskaritza.